**Zer egin behar dut Gertu Kultura programan parte hartzeko?**

Gertu Kultura plataforma erabiltzeko eman behar den lehenengo urratsa gizarte erakundea, zentroa, programa edo zerbitzua bertan erregistratzea da. Programan erregistratzea **doakoa** da gizarte erakunde guztientzat. Hauek dira jarraitu behar dituzuen pausuak:

- Gertu Kultura webgunean sartu eta **Izena eman** botoia sakatu.




- Irekitzen den galdetegia bete zentroaren informazioarekin. ***Gomendioa:** informazio argia eta zehatza eman, zenbat eta informazio gehiago eman, hobe!




- Erregistroaren onarpena: zuen eskaera aztertu eta **konfirmazio email** bat jasoko duzue. Email horretan eman behar dituzuen hurrengo pausuak zehazten dira.

- Saioa hasi lehenengo aldiz: zuen erabiltzaile eta pasahitzarekin idatzi **Saioa Hasi** atalean. Pasahitza aldatzeko aukera izango duzue barruan zaudetenean.




- Plataforman nabigatu, programazioa kontsultatu eta egin zure erreserbak!
- Zalantzarik izanez gero jarri harremanetan gipuzkoa@gertukultura.org helbidean.